



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2019KO IRAILAREN 25EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2019ko irailaren 25ean arratsaldeko 17:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Iizarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Xabier Azpiroz, Ricardo Arangoa, Santos Etxegia eta Olatz Dorai.

BERTARATU EZ DIRENAK: M^a mar Ansorena eta Julen Beunza.

17:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko batzarreko akta onartzea.

2019ko irailaren 4ko ohiko batzarreko akta, deialdiarekin batera bidali dena eta bildutakoek aho batez onartu dute.

2.- Alkate ebazpenak.

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

- 2019/96 alkate ebazpena uztailaren 30ekoa Jesus Arregui eta Goreti Echart-i obra baimena emanaz Aizarozko 10 poligonoko 60 lursailean dagoen etxebizitzan aterpe bat egiteko.
- 2019/97 alkate ebazpena uztailaren 30ekoa Felix Beunzak Ihabengo 3 poligonoko 89 lursailean dagoen pareta berritzeko aurkeztutako aurrekontu berriaren tasen likidazioa onartuz.
- 2019/98 alkate ebazpena abuztuaren 1ekoa I-Sai enpresak aurkeztutako aurrekontua onartuz udaleko langileen presentziaren kontrol eta Jauntsaratsko udal polikiroldegiko sarbide sistemak jartzeko.
- 2019/99 alkate ebazpena abuztuaren 6koa Olakoa parajea dagoen Aizarozko mendi komunaleko 2013/458 zenbakidun PEFC zertifikazioa duen mendiko lotea, Maderas Larretari behin betikoz esleitzea onartuz

- 2019/100 alkate ebazpena abuztuaren 8koa Juan Jose Azpiroz Muguruzari 2019ko dagokion zirkulazio zerga itzultzeko onartuz, NA6125AS matrikuladun autoa behin betikoz baja emanagatik.
- 2019/101 alkate ebazpena irailaren 2koa Felix Beunzari obra baimena emanaz Ihabengo 3 poligonoko 6 lursailean dagoen etxebizitzara hornidurak egikaritzeko.
- 2019/102 alkate ebazpena irailaren 2koa Jesus M^a Garcia Oliasek Ihabengo 3. Poligonoko 47. Lursaileko etxebizitzaren teilatua berritzeko aurkeztutako aitorten arduratsuaren inguruko tasak onartuz.
- 2019/103 alkate ebazpena irailaren 2koa Felix Beunzak Ihabengo 3 poligonoko 6 lursailean dagoen etxebizitzaren sarrerako zolaketa aldatzeko aurkeztutako aitorten arduratsuaren inguruko tasen likidazioaren onespena.
- 2019/104 alkate ebazpena irailaren 2koa Jose Sagardiak Olako 15 poligonoko 37 lursailean dagoen etxebizitzaren fatxada margotzeko obraren tasen likidazioaren onespena.
- 2019/105 alkate ebazpena irailaren 2koa Jose Antonio Mariñelarena Zubillagak Ihabengo 3 poligonoko 15 lursaileko pareta berritzeko obraren tasen likidazioa onartuz.
- 2019/106 alkate ebazpena irailaren 3koa onartuz behin behinekoz, gainbalioaren zergari lotuta ez egotea, Aizarotzko Olaondo Karrikako 3 zenbakian dagoen etxebizitzaren salmenta, Pablo Echarri Aldabak egindakoa, Nafarroako Toki Ogasunen 1995/2 Foru Legea aldatzen duen 2017/19 Foru Legearen 172. Artikuluaren arabera eta ikusita ez dela egon ondasunaren gainbalioa.
- 2019/107 alkate ebazpena irailaren 3koa onartuz behin behinekoz, gainbalioaren zergari lotuta ez egotea, Aizarotzko Igoabide Karrikako 5 zenbakian dagoen etxebizitzaren salmenta, Santos Etxegia Oronozek egindakoa, Nafarroako Toki Ogasunen 1995/2 Foru Legea aldatzen duen 2017/19 Foru Legearen 172. Artikuluaren arabera eta ikusita ez dela egon ondasunaren gainbalioa.
- 2019/108 alkate ebazpena irailaren 3koa M^a Juana Iriarte Ansorenari, iharduera ez kaltegarriko baimena ematea martxoaren 20ko 2019/31 Foru Dekretuaren 7 eta 9. artikuluen arabera.
- 2019/109 alkate ebazpena irailaren 3koa onartuz, M^a Juana Iriarte Ansorenaren izenean dagoen 83 ardi edukitzeko emandako jarduera baimen ez kaltegarriaren titularitatea aldatzea, Agustín Beloqui Percazi pasatzeko.
- 2019/110 alkate ebazpena irailaren 4koa onartuz Alaia Etayo Oronozek egindako jardunaldia haunditzeko eskaera Basaburuko 0.-3 haur eskolan matrikula egin duen bere alaba Aiara Arano Etayorentzat, jardunaldi erditik jardunaldi osora pasatuz, 2019-2020 ikasturte hasieratik.
- 2019/111 alkate ebazpena irailaren 4koa onartzea Tania Poncela Sanchezek egindako jardunaldia haunditzeko eskaera Basaburuko 0.-3 haur eskolan matrikula egin duen bere alaba Lena Poncelaren, jardunaldi erditik jardunaldi osora pasatuz, 2019-2020 ikasturte hasieratik
- 2019/112 alkate ebazpena irailaren 6koa Andoni Mariezcurrena eta Sarai Etayori obra baimena Igoako UA3 unitatean etxe bat eraikitzeko.
- 2019/113 alkate ebazpena irailaren 9koa Inma Fernandezi baimena ematea Kultur Etxeko gela handia erabiltzeko Yoga klaseak emateko 2019-2020 ikasturtean, astelehenetan 16:00etatik 18:30etara eta asteazkenetan 17:00etatik 18:30etara.
- 2019/114 alkate ebazpena irailaren 9koa Argimalutak kooperatibari baimena ematea Kultur Etxeko gela handia erabiltzeko "YOGA" ikastaroa egiteko 2019-2020 ikasturteko ostegunetan 18:00etatik 20:00etara.
- 2019/115 alkate ebazpena irailaren 9ko Erruki Ezkurrari baimena ematea Kultur Etxeko gela handia erabiltzeko "Gorputz berrantolaketa" kurtsoa egiteko asteartetan 18:45tik 21:00etara
- 2019/116 alkate ebazpena irailaren 11eko onartzea Angel Murugarren Rodrigok egindako eskaera eta 2019 urtean egurra uzteko tokia 7. zenbakia duen egurtokia izanen da.

- 2019/117 alkate ebazpena irailaren 16koa Inaxio Azkoaga Lasherasi obra baimena ematea lgoako elizako teilatua berritzeko, aurrekontua 8.500 euro izanik.
- 2019/118 alkate ebazpena irailaren 16ko Onartzea guneko publikoetan wifia jartzeko dirulaguntza eskaera.
- 2019/119 alkate ebazpena irailaren 18koa onartzea Joaquin Chocarro enpresak aurkeztutako aurrekontua Apeztegiherriko dendan tazak garbitzeko makina jartzeko.
- 2019/120 alkate ebazpena irailaren 2koa onartzea 2019 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 1034FTT matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik Jose Javier Auzari.
- 2019/121 alkate ebazpena irailaren 9koa Javier Recondo Elizaldekin sustatutako Beruete 12. Poligonoko 508. Lursailean abere ustiapena haunditzeko obraren EIOZren behin betiko likidazioaren onespena.

Bildutakoak ontzat ematen dituzte egindako ebazpenak.

3.- UEMAraiko ordezkariak aldaketak.

Alkateak azaltzen du ekainaren 26ko ez ohiko batzarrean adostu zela UEMAko ordezkaria bera izanen zela eta Olatz Dorai ordezkaria eta Olatzekin adostu ondoren, bera ordezkaria izatea proposatzen dute eta Olaitz Dorai ordezkaria.

Hortaz bildutakoek gaia eztabaidatu ondoren onartzen dute ondoren zehazten dena:

- Olatz Dorai izendatzea UEMAko Basaburuko Udaleko ordezkaria eta Esther Lacasta honen ordezkaria

-Jakinaraztea akordio hau UEMA-ra.

4.-Mozioak.

Alkateak klima aldaketaren konpromisuen inguruko mozioa irakurtzen du:

“Larrialdi Klimatikoa datozen urte eta hamarkadetakoa agenda baldintzatzerara etorri da, gure ongizatearentzako mehatxu nagusienetakoa baita, benetako zibilizazio erronka bat. Mundu mailako egoera eta joerak ez du baikortasunerako tarte handiegirik uzten, are gutxiago geldotasunerako. Gazteentzako dagoeneko kezka nagusia bihurtu da, ez bakarrik larrialdia, baita gaiari ematen zaion erantzun politiko eskasa ere.

Azken urte luzeetan komunitate zientifikoak aldaketa klimatikoaren bilakaeraren inguruko abisuak eta jakinarazpenak igorri ditu. Aldaketa klimatikoa, Berotegi Efektuzko Gasen isuri masibo baten ondorioz gertatzen ari da, eta isuri horien arrazoi nagusia, bakarra ez bada ere, gure metabolismo sozioekonomikoa mantentzeko erretzen ditugun baliabide fosilen erabilpenean datza. Aldaketa klimatikoa, beraz, guk eragiten dugu nagusiki, eta dagoeneko ondorioak atzematen hasiak gara.

Urte urte argitaraturiko txostenetan, egoera kaskartzen ari denaren zantzuak ditugu. Nazioarteko hainbat erakunde eta lantaldeek argitaratzen dituzten txostenetan gero eta argiago esaten da klima eta energia politikan, eta ondorioz gure egunerokotasunean, eraldaketa sakon bat, iraultza bat, eman behar dela, baldin eta egoerari aurre egin nahi baldin badiogu eta aldaketa klimatikoaren efektu bortitzenak pairatu nahi ez baditugu.

2018ko urrian, IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak, plazaraturiko txosten berezi batean, tonua altxa zuen indarrean dauden politikek behar besteko anbiziorik ez dutela salatuz, eta elektrizitatearen, nekazaritzaren, garraioaren eta industriaren sektoreetan aurrekaririk gabeko aldaketak eskatuz.

2018ko azaroan, Nazio Batuen Ingurumen Panelak aditzera emandako txostenak egoera larria dela ohartarazten du, esfortzuak areagotzen ez badira hondamendira goazela azpimarratuz.

Gaia bere osotasunean ikusirik, argi dago ataka batean gaudela eta orain arte proposatu eta egindakoa berraztertu beharrean gaudela. Ahal dela, eta industria iraultza aurretiko egoerarekin alderatuta, 1,5°Cko tenperatura igoera ez gainditzea helburutzat zuen 2015eko Parisko Akordioa betetzeko, orain arte emandako pausoak guztiz ez-nahikotzat jo beharrean gaude.

Hasieran genion bezala, zibilizazio erronka baten aurrean gaude, eta aurrez aurre Nafar Gobernuaren eragin esparru eta ahalmenak gainditzen dituen lanak baditugu ere, egoerak partekaturiko esfortzu bat eskatzen du.

Gure ustetan, ipar orratza ahalik eta azkarren karbono isurietan neutroa izango den Mundu baterantz begira jarri beharrean gaude, eta horretarako ezinbestekoa da eraldaketa azkar eta eraginkorrak egitea. Prozesu honek gure jendartean inplikazio anitz eta sakonak ekarriko ditu, bai ehun produktiboan, bai mugikortasunean, bai lurralde antolamenduan eta abar, horregatik deritzogu pausu azkar eta eraginkorrak ematea ezinbestekoa dela.

Mozio honen bitartez, egoeraren larritasuna aitortzea dugu helburu, Larrialdi Klimatikoari behar besteko arreta ipintzeko asmoarekin, aurrerantzean politika publiko guztiak Larrialdi Klimatiko egoeraz kutsa daitezen

Hori horrela, EH Bildu Basaburuko Udal taldeak honako MOZIOA aurkezten du

Basaburuko Udalak larrialdi Klimatiko egoera deklaratzeko du.

Basaburuko Udalak, Nafarroako Parlamentuari eskatzen dio, lehen baino lehen onartu dezala Aldaketa klimatikoa eta eredu energetikoaren trantsiziorako Legea.

Basaburuko Udalak, Nafarroako Gobernuari larrialdi klimatiko egoera deklaratzeko eskatzen dio, eta honi aurre egiteko beharrezkoa den karbono gabetze prozesua 2040. urtera aurreratzeko moduko plangintza eta politikak abiatzera premiatzen du.

Basaburuko Udalak, Nafarroako gobernuari aldaketa klimatikoaren eraginez pairatuko ditugun ondorioetara egokitzeko neurriak hartzera eskatzen dio.

Basaburuko Udalak, bere eskumenen baitan, Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko politika eraginkorrek garatzeko konpromiso irmoa adierazten du.

Basaburuko Udalak bere babesa ematen dio, larrialdi klimatikoaren egoera dela medio, irailaren 27an deituta dagoen nazioarteko grebari eta herritar guztiak parte hartzera animatzen ditu.

Basaburuko Udalak Bando baten bitartez emango die mozio honen berri herritar, auzo eta kontzejuei.

Basaburuko Udalak Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Trantsizio Ekologikorako Ministerioari bideratuko die onartutako mozioa.

Bildutakoek onartzen dute transkribatutako mozioa aho batez.

Alkateak azaltzen du Ondarearen Defentsaren Plataformarekin bilera izan zuela eta udaletan ondoren zehazten den akordioa onartzea proposatu zuten:

Irakurri eta transkribaten da aipatutakoa:

Basaburuko Udalak hauxe onartu du:

- Jabetzaren Erregistrora ondasunen informazio ohar soilak eskatzea, Eliza Katolikoak bere izanen askotarikoekin elizabarrutia, apezpikutegia, parrokia eta abar Hipoteka Legearen 206 artikularen babesean zer inmatrikulatu duen jakiteko.
- Basaburuko Kontzejuen izenean inmatrikulatzea eliza katolikokoan inmatrikulatzeko arriskua dagoen ondasunak.
- Inmatrikulaturiko ondasunen eskubideei uko egin gabe, erabaki dugu ez ordaintzea ohko gastuak eta ez diruztatzea obrarik, ezta ondasun horiek mantentzeko eta kontserbatzeko auzolanik egitea ere, elizaren izenean daogen bitartean. Udalak eta herritarren laguntzarik ematekotan, ondasuna itzultzeko baldintzarekin.
- Inbentario bat egitea jasota geldi dadin, nola dauden udalaerri hauetan Eliza Katolikoak inmatrikulatu dituen ondasunak. Batem bat hondatzeko zorian badago, Udala 35/2002 Foru Legearen 195. Artikulura atxikiko da, eta exekuzio aginduak emango ditu eta martxan jarriko zehazpen prozedura betetzen ez badu.
- Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformara atxikitzea.
- Nafarroko Ondarearen Defentsarako Plataformarekin kolaboratzea.
- Eliza katolikoak inmatrikulaturiko ondarea berreskuratzearen aldeko ekimenetan parte hartzea.

- Hitzarmenen berri ematea Nafarroako Ondoarearen Defentsarako Plataformari.

Bildutakoek onartzen dute transkribatutako akordioa aho batez. Alkateak ere azaltzen du udaletik eskatu dela Jabetasun Erregistrora Basaburuan dauden eta elizak bere izenean dituen jabetasunen zerrenda, ondoren kontzejuetara helaraziko da beraiek nahi dituzten pausoak emateko.

5.- Batzordeen informazioa.

Ez dago.

6.- Informazio orokorra.

Ez dago.

7.-Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:00ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.